



## 2024 KO KOFRADIETAKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

**Deia zabaltzen du:** Legutioko Udala.

**Partehartzaileak eta baldintzak:** Nahi duten guztiak har dezakete parte.

**Epea:** Kartelak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 10arte, eguerdiko 14:00.

**Teknika:** Teknika eta materialak libreak izango dira, beti ere inprimatzeko egokiak izan behar dira.

**Derrigorrezko testua:** Kartelean derrigorrez agertu beharko da: Legutio Kofradiak 2024. Irailak 13,14,15 eta 16.

**Formatoa:** 21 x 29,7 cm-ko kartela (A4), formatu bertikalean. Ordenagailuz egiten bada eta kartela irabazlea suertatzen bada, egileak euskarri informatikoa, inprimatzeko ohiko programan erraztuko du.

Ez da onartuko irudi edota mezu sexista, xenofobo, arrazistak eta antzekoak dauzkan kartelik.

**Aurkezpena:** Lanak izenperik eta identifikazio daturik gabe sobre batean aurkeztuko dira, ondoko izenburuarekin "Kartel lehiaketa 2024". Gutuazalearen barruan beste gutunazal bat entregatuko behar da, zeinetan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta lanaren izenburua agertuko dira.

Kartela Legutioko Udaletxean entregatu behar da edota korreoz bidali helbide honetara: Legutioko Udaletxea. "Kartel lehiaketa 2024". Karmen Kalea 10, 01170 Legutio (Araba).

**Epaimahaia:** Kartel irabazlea herriko elkarte eta alderdi politikoek osatutako jai batzordean bozkatuko da, elkarte bakoitzeko boto bat izango duelarik.

**Saria:** Kartel irabazleak 300€ jasoko ditu

Lana aurkeztean oinarriak eta epaileen erabakia onartzen da. Epaimahaiaren erabakiaren apelaezina izango da.

Lanak originalak izan behar dira, bestelako lehiaketetan entregatu ez direnak eta egilea izango da Udaletxe eta hirugarrenen aurrean oinarrietan zehaztutakoa betetzen delaren arduradun.

Kartel irabazlean Udaletxearen esku geratuko da. Gainerako lanak egileei bueltatuko zaizkie.